

## EDITORIALA



Akademia hil da. Terry Eagleton (1943-an jaioa) kritikari britaniarraren esana da, unibertsitatearen heriotza bizi dugula baieztatuz. Goi-mailako hezkuntzak utziko dio zirikatze eta eragiteko funtzioari, gelditzeko pausarik gabe, ekinean jartzen duelako ikasleria. Egin eta egin, pentsatzeko astirik gabe, makinaren logos-a inplantaturik. Unibertsitateak izaera militar klasikoa —hierarkikoa, arautua— alboratu du enpresa itxura hartzeko —lehiakortasunaren eta berritzailearen ikurrekin—, produktibitatearen makinerian txertatzeko langile fidelak ekoizteko gidalerroak dituelako mahai gainean. Horrekin batera, irakasleria itsutu egingo da puntuen karrera pertsonalaren lasterketan, unibertsitateak txalotzen dituen ekintzak egiten eta «*seme on*»aren papera antzezten.

Arkitektura-arloan, unibertsitatearen funtzioa berregiteko arazoak biderkatu egiten dira, gizartearen beharren arabera arkitekturak egokitzapen-prozesuak jasan behar dituelako, eta oraindik ere antzinako ereduan oinarritzen dira arkitektura-ikasketak. Arkitektoaren funtzioa gizartean birpentsatzeko dago; eraikuntzaren krisiak arkitektoaren papera ezbaian jarri du hainbat lan-iturri klasiko agortu direnean. Akademiak horretarako esparru bat eskaini beharko luke; akaso esnatu berri den ikerketarako grinak hartuko du egiteko horren lidergoa.

Unibertsitatearen batailari aurre egiteko, arkitekturak jakin badaki espazioaren erabilera politikoa dela eta tresna boteretsua duela eskuartean ikasleei «eragiteko». Hezkuntzaren balioaz jabetu da arkitektura aspaldi —Cedric Price-ren *PotteriesThinkbelt* proposamenaren unibertsitate dinamikoa eta Aldo van Eyck eta Herman Hertzbergerren hezkuntzarako espazioen ikerketak adibide—, eta ematen du arkitektoen belaunaldi bat jaio dela espazioaren eta hezkuntzaren arteko hartu-emanekin arduratuta.

Boteretik ez, baizik eta komunitatea eginaz eraikitzen diren espazioak aldarrikatu behar dira; hezkuntzatik has gaitezen. Hezkuntza-eredu alternatiboak eraiki ditzagun espazioaren bitartez, hezkuntza eta espazioa bata bestea elikatzen duen binomio bat izan daitezen.